





EOALAK

II EXPOSICION INTERNACIONAL DE AVICULTURA EOALAK

ALONSOTEGI - BIZKAIA.

*DEL 18 AL 20 DE DICIEMBRE DE 2009 | ALONSOTEGI*

Alonsotegi

# *Reglamento de la exposición*

## *CONDICIONES GENERALES*

*La exposición se desarrollará según los reglamentos de la Entente Europea de Avicultura y las normas de la Asociación organizadora.*

*La Exposición-Concurso está abierta a todos los avicultores (amateurs o profesionales) que estén afiliados en una asociación de avicultura legalmente constituida.*

*Animales que pueden participar:*

*a) Razas: Gallinas, ocas, patos, pavos, palomas y pintadas.*

## *LUGAR Y FECHA*

*La Exposición se celebrará en el* frontón de ALONSOTEGI (Bizkaia) *Los días: 18, 19 y 20 de DICIEMBRE de 2009.*

*El Horario de apertura al público será el siguiente:*

*Viernes, 18 de DICIEMBRE: De 10 a 13 horas: Visita de Escolares. A las 13 horas: Inauguración Oficial. De 16 a 19 Horas.*

*Sábado, 19 de DICIEMBRE: De 10 a 19 Horas.*

*Domingo, 20 de DICIEMBRE: De 10 a 14 Horas.*

## *ORGANIZACIÓN*

*La organización corre a cargo de Asociación EOLAK con la colaboración del Ayuntamiento de ALONSOTEGI.*

## *RAZAS*

*Podrán participar los animales siguientes:*

*- Gallinas grandes y enanas: individual, pareja y lote.*

*- Palmípedas: individual y pareja.*

*- Palomas: Individual.*

*- Pavos y pintadas: individual y pareja.*

*El lote estará compuesto siempre por un macho y un mínimo de tres hembras. Pueden ser expuestas sólo razas con estándar. La edad máxima de los animales expuestos será de 6 años. En caso de superar dicha edad serán descalificados.*

*Los animales pueden ser expuestos a nombre de un criador, de una asociación o de cualquier entidad pública, social y comercial legalmente constituida,*

*Las anillas personales deben estar tapadas. En caso contrario el animal será descalificado.*

## *INSCRIPCIONES*

*Las inscripciones tendrán que estar en poder de la Organización antes del día 1 de DICIEMBRE de 2009 en la siguiente dirección: IKUSI_MAKUSI c/ Areitzo, 2 (48810 – Alonsotegi) o en el email: eoalak@gmail.com*

*La confirmación de la recepción de la inscripción. Las inscripciones se escribirán en la hoja de inscripción facilitada por la organización. Debe de constar con letra muy clara el nombre de la raza, color, sexo, y precio de venta y si van individuales, en pareja, trió o lote. El número de anilla no es obligatorio indicarlo en el momento de rellenar la hoja, La inscripción tiene un coste de 3 €/animal y totalmente gratuita para los socios de EOALAK. La organización se reserva el derecho de rechazar las inscripciones, previa comunicación al interesado, si causas de alojamiento así lo obligaran. Habrá fijado un número exacto de jaulas, una vez cubierto se rehusarán las últimas inscripciones recibidas. Si se diera el caso, que alguno de los animales, por circunstancias de enfermedad, muerte, etc., causara baja una vez inscrito, el criador tendrá que comunicarlo urgentemente a la organización para darlo de baja o intentar suplirlo por otro, siempre que sea de la misma raza.*

**Nota:** La organización se reserva el derecho de participación de los inscritos.

### *ENVÍO DE LOS ANIMALES Y CONTROL VETERINARIO*

*Los animales que se envíen por agencia de transporte, hay que consignarlos el miércoles día 16 de DICIEMBRE, a nombre de: Eoalak (MRW oficina Balmaseda) Balmaseda – Bizkaia.*

*Indicar con claridad y de forma visible el nombre de la raza, el número de anilla de los animales que vienen en cada caja o departamento. Se enviará con antelación la hoja de Inscripción por correo postal o bien, por fax 94 498 08 00 o al correo electrónico indicado.*

*Los que se entreguen directamente en el recinto de la exposición tendrán que hacerlo el jueves día 17 de DICIEMBRE en horario de 16h a 22 h.*

*A su llegada serán sometidos a una revisión veterinaria, que se encargará de retirar antes del inicio de la exposición a los animales enfermos o mal presentados. Los jueces también podrán Ordenar su retirada sino cumplen las condiciones sanitarias mínimas.*

*Las aves inscritas deben tener la correspondiente guía sanitaria firmada por un veterinario oficial de la administración, que deberá entregarse en secretaría o bien situarse en un lugar visible si el envío se realiza por agencia de transporte.*

*La organización devolverá sólo en casos justificados aquellos animales expuestos que no hayan sido recogidos por sus propietarios porque no han podido desplazarse a ALONSOTEGI se Enviarán por agencia de transporte durante el lunes y el martes (21 y 22 de DICIEMBRE) portes debidos. Se recomienda a todos los criadores recoger personalmente sus animales.*

## *ENJUICIAMIENTO*

*Los animales serán valorados por jueces designados por FESACOCUR. El enjuiciamiento se realizará el 18 de DICIEMBRE. No hay reclamación posible en las decisiones de los jueces.*

### *VENTA DE ANIMALES*

*Los animales inscritos pueden ponerse a la venta. El precio se tiene que mencionar en la casilla correspondiente. La Asociación organizadora, se reservará el 10% del precio del animal.*

*Está prohibido sacar los animales de las jaulas, incluso para los propietarios. Los visitantes que tengan interés en comprar animales han de traer su propio material de embalaje.*

*Las ventas de animales se harán a través de la oficina de la organización. Previamente hay que rellenar la tarjeta de compra Los animales que estén en venta dispondrán del precio en la Etiqueta de enjuiciamiento correspondiente.*

*El viernes 18 de DICIEMBRE solo tendrán opción de compra los expositores y organizadores. A partir del sábado a las 10 horas y hasta el domingo a las 13 horas la venta estará abierta al resto de aficionados.*

*Las liquidaciones de las ventas se harán a posteriori, mediante talón nominativo o giro postal, que será enviado en un margen de quince días naturales a todos los criadores.*

*Los animales vendidos serán entregados el Sábado día 19 a partir de las 18 horas y el Domingo 20 a partir de las 14 horas.*

## *RECOGIDA DE ANIMALES*

*Los animales expuestos se podrán empezar recoger el domingo a partir de las 14:00. En todos los casos es obligatorio ir acompañado de un responsable de la organización y presentar la factura de compra.*

## *RESPONSABILIDADES*

*Los Organizadores no serán responsables del desgaste, heridas o muerte que se produzca durante la exposición, está prohibido traer a la sala cualquier tipo de ave, así como la presencia de perros.*

*Los organizadores decidirán en todos los casos no previstos. En caso de extravió durante la exposición se abonará 20 euros por animal esté o no a la venta.*

## *PREMIOS.*

*1º Mejor Gallo Raza Grande.*
*1º Mejor Gallina Raza Grande.*
*1º Mejor lote Raza Grande.*

*1º Mejor Gallo Raza Ligera.*
*1º Mejor Gallina Raza Ligera.*
*1º Mejor Gallo Raza Enana.*
*1º Mejor Gallina Raza Enana.*

*Mejor Gallo/Gallina Exposición.*
*Mejor Criador de la Exposición.*
*Mejor Gallo/Gallina Autóctona.*

*Mejor Conejo.*
*Mejor Paloma.*

### *PARA MÁS INFORMACION, LLAMAR A:*

*Ander Beraza (Secretario técnico) 605748190.*
*Miguel Ángel García (Vicepresidente) 609027880.*
*Joseba Bringas (Secretario) 639647083.*
*Email .- eoalak@gmail.com*

EOALAK FESACOCUR EUSKAL ABEREAK

EUSKAL OILOA







EOALAK

# EOALAK HEGAZTI-HAZKUNTZAREN NAZIOARTEKO II. ERAKUSKETA

ALONSOTEGI - BIZKAIA

*2009ko ABENDUAREN 18tik 20ra | ALONSOTEGI*

Alonsotegi

***Erakusketaren araudia***

***BALDINTZA OROKORRAK***

*Europako Hegazti-hazkuntzaren Erakundearen eta erakunde antolatzailearen araudia hartuko da oinarritzat erakusketa gauzatzeko.*

*Erakusketa-lehiaketa honetan, hegaztizain guztiek (zaleak zein profesionalak) har dezakete parte, betiere legez eratutako hegazti-hazkuntza arloko erakunderen bateko kideak badira.*

*Bestalde, parte hartu ahal izango duten animaliak hauexek dira:*

*a) Arrazak: oiloak, antzarak, ahateak, indioilarrak, usoak eta pintadak.*

***TOKIA ETA DATA***

*Erakusketa ALONSOTEGIko (Bizkaia) pilotalekuan egingo da 2009ko ABENDUAREN 18an, 19an eta 20an.*

*Jendaurreko ordutegia honako hau izango da:*

*ABENDUAK 18, ostirala: 10:00etatik 13:00etara, ikastetxeek bisitatu ahal izango dute erakusketa. 13:00etan, erakusketaren inaugurazio ofiziala izango da. Arratsaldez, 16:00etatik 19:00etara.*

*ABENDUAK 19, larunbata: 10:00etatik 19:00etara.*

*ABENDUAK 20, igandea: 10:00etatik 14:00etara.*

***ANTOLATZAILEAK***

*EOLAK elkarteak antolatu eta ALONSOTEGIko Udalaren laguntza izango du.*

***ARRAZAK***

*Parte hartu ahal izango duten animaliak hauexek dira:*

*- Oilo handi eta txikiak: banan-banan, bikotean eta lotean.*

*- Palmipedoak: banan-banan eta bikotean.*

*- Usoak: banan-banan.*

*- Indioilarrak eta pintadak: banan-banan eta bikotean.*

*Loteetan beti ar bat eta gutxienez hiru eme egongo dira; eta arraza estandardunek baino ezin izango dute parte hartu. Erakusketan parte hartuko duten animaliek gehienez 6 urte izango dituzte. Urte gehiago izatekotan, animalia horiek deskalifikatu egingo dira.*

*Animalien erakusleak honako hauek izan ahal izango dira: hazleak, erakunderen bat edo legez eratutako elkarte publiko, sozial eta komertzialak.*

*Animaliek eraman beharreko uztaiak estalita egon beharko dira; eta, egon ezean, animalia erakusketatik kanpo geratuko da.*

***IZEN-EMATEA***

*Izena emateko inprimakiak 2009ko ABENDUAREN 1a baino lehen egon behar dira antolatzaileen esku. Horretarako, jo helbide honetara IKUSI_MAKUSI Areitzo kalea, 2 (48810 – Alonsotegi) edo idatzi mezu elektronikoa helbide honetara: eoalak@gmail.com.*

*Izen-ematearen baieztapena. Izena emateko ezinbestekoa izango da antolatzaileek emandako inprimakia betetzea. Inprimakiaren letra argia izango da, eta hurrengo hauek agertu beharko dira: arrazaren izena, kolorea, sexua, saltzeko prezioa eta banan-banan, bikotean, hirukotean ala lotean dauden. Inprimakia betetzean, ez da beharrezkoa izango uztaiaren zenbakia jartzea. Izen-emateak 3 euro balio du animalia bakoitzeko eta doakoa izango da EOALAK elkarteko kideentzat. Erakusle guztientzako lekurik egon ezean, antolatzaileek eskubidea izango dute bazter uzteko izena ematen azkenak izan direnak, baina betiere interesatuari jakinarazi egingo diote. Era berean, kaiola kopuru zehatza ezarriko da. Beraz, kopuru hori betetakoan, jasotako azken izen-emateak bazter utziko dituzte antolatzaileek. Baina izena eman ostean, gaixotasun, heriotza edo dena delakoagatik animaliaren bat baja izango balitz, hazleak lehenbailehen jakinarazi beharko die antolatzaileei, horiek animaliaren baja ematekoe eta arraza berbereko beste batez ordezten saiatzeko.*

***Oharra:*** *Izena eman dutenen partaidetza bazter uzteko eskubidea izango dute antolatzaileek.*

***ANIMALIAK BIDALTZEA ETA ALBAITARIAREN KONTROLA***

*Garraiobide-agentziaren bitartez bidaltzen diren animaliak ABENDUAREN 16an (asteazkena) kontsignatu beharko dira hurrengo izen honekin: EOALAK (Balmasedako MRW bulegoa) Balmaseda – Bizkaia.*

*Horretarako, letra argiz eta leku argian honako hauek agertu beharko dira: kutxa edo sail bakoitzean bidaltzen diren animalien arrazaren izena eta uztai-zenbakia. Baina hori egin baino lehenago, izena emateko inprimakia bidali beharko da korreoz hurrengo fax zenbakira: 94 498 0800, edo gorago zehaztutako posta elektronikora.*

*Zuzenean erakusketa-gunera animalia eraman nahi dutenek ABENDUAREN 17an (osteguna) eraman beharko dute 16:00etatik 22:00etara.*

*Animaliak jasotzean, albaitariak aztertu egingo ditu; eta horrek bazter utzi beharko ditu gaixorik dauden edo erakusteko itxura egokirik ez duten animaliak erakusketa hasi baino lehen. Epaileek ere animaliak erakusketatik kentzeko eskatu ahal izango dute, erakusketa egin bitartean ez badituzte gutxienezko osasun-baldintzak betetzen.*

*Aurkeztutako hegazti guztiek izan beharko dute administrazioko albaitari ofizial batek sinatutako osasun ziurtagiria, eta agiri hori ere idazkaritzan aurkeztu beharko dute. Bestalde, animaliak agentzia bidez bidaltzen badira, ageriko lekuren batean izan beharko dute aipatutako ziurtagiria.*

*ALONSOTEGIRA joan ezin izango diren jabeek era egokian justifikatu egin beharko dute animaliak jasotzera joan ezin izana; bestela, erakunde antolatzaileak ez ditu itzuliko animaliak. ALONSOTEGIRA joan ezin izango diren jabeei garraiobidez bidaliko zaizkie animaliak astelehenean eta asteartean (ABENDUAREN 21ean eta 22an), baina garraio-kostua jabeek eurek hartu beharko dute beregain. Dena dela, hazleei gomendatzen zaie animalien bila joan daitezela.*

***EPAITZEA***

*FESACOCURek izendatutako epaileek baloratuko dituzte animaliak. Epaia ABENDUAREN 18an egingo da. Eta epaileek emandako erabakien aurrean ez da egongo erreklamaziorik aurkezterik.*

***ANIMALIAK SALTZEA***

*Izena eman duten animalia guztiak salgai jarri ahal izango dira. Xede horretarako jarritako laukitxoan salneurria idatzi beharko da. Antolatzaileek animaliaren prezioaren % 10 jasotzeko eskubidea izango dute*

*Debekatuta egongo da animaliak kaioletatik ateratzea (jabeek eurek ere debekatuta izango dute). Animaliak erosi nahi dituzten bisitariei dagokienez, animaliak eraman ahal izateko materiala ekarri beharko dute eurek.*

*Erosketak antolatzaileen bulegoaren bitartez egingo dira. Lehenengo eta behin, erosketa-txartela bete beharko dute. Salmentan dauden animaliek zehaztuta eta agerian izango dute prezioa aldez aurretik egindako epaitze-txartelean.*

*ABENDUAREN 18an (ostirala) erakusketaren parte-hartzaileek eta antolatzaileek baino ezin izango dute animaliarik erosi. Alabaina, larunbatean, 10:00etatik aurrera eta igandeko 13:00ak arte gainontzeko guztiek erosi ahal izango dituzte animaliak.*

*Erosketak lehiaketaren ostean likidatu beharko dira, izendun txekearen edo posta bidezko igorpenaren bitartez, eta gehienez ere erosketa egiten denetik hamabost egutegi-egunera.*

*Erositako animaliak larunbatean (hilak 19) 18:00etatik aurrera edo igandean (hilak 20) 14:00etatik aurrera jaso ahal izango dira.*

***ANIMALIAK BILTZEA***

*Erakusketan parte hartu duten animaliak igandean jaso ahal izango dira, 14:00etatik aurrera.*

*Kasu guztietan beharrezkoa izango da erakundeko arduradunen batekin joatea eta erosketa-faktura aurkeztea.*

***ERANTZUKIZUNAK***

*Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango erakusketa egin bitartean higidura, zauri edo heriotzarik gertatuz gero. Erabat debekatuta egongo da erakusketa-eremura bestelako hegaztirik edo txakurrik ekartzea.*

*Arduradunek ebatzi beharko dute oinarriotan aurreikusita ez dagoen edozein auzi. Erakusketa egin bitartean, animaliaren bat galduko balitz, 20 euro jasoko lituzke hazleak horren truke, animalia salmentan dagoen ala ez kontuan hartu gabe.*

***SARIAK***

| | |
|---|---|
| *Arraza handiko oilarrik onena* | *Erakusketako oilar/oilorik onena* |
| *Arraza handiko oilorik onena* | *Erakusketako hazlerik onena* |
| *Arraza handiko loterik onena* | *Tokiko oilar/oilorik onena* |
| *Arraza arineko oilarrik onena* | *Untxirik onena* |
| *Arraza arineko oilorik onena* | *Usorik onena* |
| *Arraza txikiko oilarrik onena* | |
| *Arraza txikiko oilorik onena* | |

***INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEKO, DEITU TELEFONO HAUETARIKO BATERA:***

*Ander Beraza (idazkari teknikoa) 605748190.*
*Miguel Ángel García (buruordea) 609027880.*
*Joseba Bringas (idazkaria) 639647083.*
*Posta elektronikoa: eoalak@gmail.com*

EOALAK FESACOCUR EUSKAL ABEREAK

EUSKAL OILOA